

ANKULEGI XXI. ANTROPOLOGIA JARDUNALDIA
Ankulegi Antropologia Elkarteak eta Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia
Sailak antolatua

SOINUAK, ZARATAK, MUSIKAK.
ANTROPOLOGIA ETA SONORITATEA
(Donostian, 2018ko MARTXOAREN 9an)

Mendebaldeko kulturaren testuinguruan lehenetsi eta gailendu dira testuala dena, ikusmena eta begirada, besteekin erlazionatu eta besteak ezagutzeko bide bezala, bestelako pertzepzio-gaitasunak bigarren mailan utzita, esparru akademikoan zein jardun antropologikoan oro har. Alabaina, “giro sentsoriala” deitu denak arreta jarri du zentzumenetan, emozioetan eta gorputzetan, eta, horrenbestez, zentzumenak modu zabalagoan lantzeko bidea ireki du, bai tresna metodologiko moduan, bai informazio iturri edo ikerketa objektu moduan.

Hori dela eta, Ankulegi Jardunaldien XXI. edizio honetan, entzumenaren eta sonoritatearen inguruan gogoeta egin nahi dugu, Antropologiarekin dituzten askotariko erlazioen ikuspegitik: etnomusikologia; musika gizartearen lengoaiak, fusio edota sinbolo gisa; soinu-etnografia eta zarataren analisisan oinarrituriko hiriaren zein landa eremuaren ikerketa; identitateak eta memoriak sonoritatearekin duten erlazioa; iturri akustikoen erabilpenaren inguruko gogoeta; etab.

Hala, gai horien inguruan hausnartzeko asmoz, Ankulegitik dei egiten dugu Jardunaldi honetan sonoritatearen gaia landuko duten komunikazioak bidaltzeko; sonoritatea hartuta bai objektu moduan, bai analisi-eredu gisa edo ikerketarako pizgarri zein teknika bezala.

Proposamenak euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez bidali behar dira, urtarrilaren 15a baino lehen, ondorengo helbide elektroniko honetara: ankulegi2018@gmail.com. Proposamenek honako atalak izan behar dituzte:

- **Proposamen-mota:** komunikazioa, posterra, tailerra, ikus-entzunezkoa edo beste formaturen bat.
- **Izenburua:** izenburu nagusia eta azpтитulua, hala badagokio.
- **Egilea:** izen-abizenak, helbide elektronikoa, diziplina eta jatorri instituzionala.

- **Deskribapen laburra:** proposamenaren ideia nagusiari buruzko sinopsia. Komunikabideetan Jardunaldia zabaltzeko erabiliko da. Gehienez, 30 hitz.
- **Deskribapen luzea:** proposamenaren helburu, metodo eta inplikazioen deskribapen zehatza. Proposamena ebaluatzeko balio izango du eta, horrela badagokio, Jardunaldiaren web-gunean zabalduko da, egitarauarekin batera. Gomendatutako luzera 150-200 hitzekoa da.
- **Hitz gakoak:** 2-3 hitz bakarrik.

Jardunaldia San Telmo Museoan (Donostia) izango da, martxoaren 9an. Urtarrilaren amaieran, proposamenen egileekin harremanetan jarriko gara, onartuak edo baztertuak izan diren jakinarazteko.

Aurreko urteetan bezala, 2018an Ankulegi Elkartearen aldizkariak zenbaki monografiko bat argitaratuko du, jardunaldian landutako gai berberaren inguruan. Jardunaldian komunikazioak aurkeztuko dituzten egileak artikuluak bidaltzera animatzen ditugu, argitaratuko baitira baldin eta kontseilu zientifikoaren betebeharrak formalak eta kalitatezkoak betetzen badituzte, peer review prozesua pasa ondoren.